2021eko apirilean erregistratutako langabezia

2021ko apirilean zehar LANBIDEko bulegoetan % 2,34 langabe gutxiago erregistratu dira, langabe kopurua 126.982 da, aurreko hilean baino 3.039 gutxiago. Litekeena da jaitsiera hau aurreko hilean SEPEn izandako sistemaren erortzearen doikuntzaren ondorio izatea. Efektu hau gabe, hil honetako jaitsiera 2018 eta 2019ko apirilan izandakoaren oso antzekoa izango zen. Normalean, apirilean langabezia jaitsi egin ohi da. Krisi aurreko garaian hala izan zen, krisi urteetan ere bai (2011an izan ezik), eta hala izan da azken urteetan ere, 2020an izan ezik, osasun krisiaren ondorio.



	api. 07	api. 08	api. 09	api. 10	api. 11	api. 12	api. 13	api. 14	api. 15	api. 16	api. 17	api. 18	api. 19	api. 20	api. 21
Series1	-2.211	-883	1.021	-3.825	1.604	-22	-752	-75	-3.964	-1.375	-1.149	-2.260	-2.308	10.430	-3039

Aurreko urteko apirilarekin alderatuz, 11.661 pertsonetan murriztu da langabezia. 2020ko otsailarekin alderatuz (krisi hasi aurreko hilabetea) 9.743 langabe gehiago zenbatu dira,.



- **SEXUA**

Azken hilabetean, balore absolutuetan, langabezia emakumezkoen artean gehiago murriztu da (-1.687) gizonezkoen artean baino (-1.352). Urte arteko saldoari dagokionez, gizonezkoen artean gehiago murriztu da (-6.319) emakumezkoen arten baino (-5.342); krisi hasieran gizonezkoak izan baziren ere gehien kaltetuenak, errekuperazio erritmo altuagoa daramate. Gaur egun langabeen % 55,6 emakumeak dira.

- **ADINA**

Azken hilabete honetan langabezia murrizketa nabarmenenak 25-34 urte artekoen artean (-1.199) eta 35-44 urte artekoen artean (-873) izan dira. Urte arteko bilakaeran ere 25-34 adin tartean (-% 18,13) eta 35-44 adin tartean (-% 14,25) izan dira murrizketa nabarmenenak.

- **JARDUERA EKONOMIKOA**

Apirilean zehar, langabezia murriztu egin da sektore guztietan. Industrian izan da jaitsiera nabarmenena (-% 3,00), eta ondoren Eraikuntzan (-% 2,46). Aurretik enplegurik izan ez dutenen artean % 0,10 murriztu da. Balore erlatiboetan eta aurreko urteko datuarekin alderatuz Eraikuntzako jaitsiera (-% 12,97) eta Industria sektorekoa (-% 12,82) nabarmentzen dira. Aurretik enplegurik izan ez dutenen artean % 7,47 hazi da.

Datuak zehatzago aztertuta, langabezia murrizketa handienak izan dituzten jarduerak hauek izan dira: txikizkako merkataritza (-411), janari eta edarien zerbitzuak (-378), hezkuntza (-212) eta eraikinen zerbitzuak eta lorezaintza jarduerak (-189). Langabezia hazkunde nabarmenenak ikerketa eta garapenean (+7), arrantzan (+6), finantza zerbitzuetan (+5) eta beste manufaktura industrian (+5) izan dira.

- **LANGABEZIAREN IRAUPENA**

Hilabete honetan, epe luzeko langabezia 565 pertsonatan hazi da (+% 0,82) eta epe laburrekoa murriztu egin da 3.604 pertsonatan (-% 5,89). Urte osoari begiratuz gero, epe laburreko langabeen artean murrizketa bat eman da (-% 26,33) eta epe luzekoen artean hazkundea (+% 14,79). Gaur egun 69.367 langabe, % 54,6, epe luzeko langabeak dira.

- **LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA**

Apirilean langabeziaren bilakaera hiru lurraldeetan ondorengoa izan da: Araban % 1,21 murriztu da (265 pertsona gutxiago), Gipuzkoan % 2,47 murriztu da (854 pertsona gutxiago) eta Bizkaian % 2,61 murriztu da (1.920 pertsona gutxiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz Arabak erregistratu du eboluzio okerrena % 7,56ko murrizketarekin; Bizkaiak jarraitzen dio % 8,23ko murrizketarekin eta azkenik Gipuzkoan % 9,33 murriztu da.

Hiriburuak aztertuta, Bilbon azken hilean 685 pertsonatan murriztu da langabezia (-% 2,72), Gasteizen 287 pertsonatan (-% 1,68) eta Donostian 217 pertsonatan (-% 2,48). Murrizketa nabarmenak izan dituzten beste eskualde batzuk, Ezker Eskualdea (-452), Durangaldea (-153) eta Bidasoa Behera (-134) izan dira. Arabako Ibarrean (+21), Aiaran (+20) eta Arabar Errioxan (+11) izandako hazkundeak nabarmentzen dira.

Erregistratuko langabezia indize altuenak dituzten udalerriak hauek izan dira: Oion (% 21,37), Sestao (% 18,75), Balmaseda (% 17,14), Alonsotegi (% 16,58) eta Santurtzi (% 16,50%).

2021eko apirilean erregistratutako langabezia

• LANGABEZIA-PRESTAZIOA

2021ko apirilean 42.712 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 950 langabe gutxiagok. Langabeen % 33,6k du gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea. 22.816 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen % 18,0 dira horiek. 19.896 langabek (% 15,67), berriz, langabezia prestazioa jasotzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (% 35,5), Araban % 32,1ekoa da eta Bizkaian % 33,2koa.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabezia estaldura-tasa 0.06 puntu hazi da; aurreko urtearekin alderatuz 3.65 murriztu da.

Apirilean ordaindutakoaren araberako prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua eta langabezia prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua murriztu egin da.

• JATORRIA

Langabeen % 16,31 (20.712 lagun), atzerritarrak dira. Aurreko hilarekin alderatuta, langabezia % 1,95 murriztu da atzerritarren artean, eta % 2,41 bertakoen artean. Urte arteko erlazioan, atzerritarren arten langabezia % 7,94 murriztu da, eta bertakoen artean % 8,50.

Langabe atzerritarren % 33,8 Afrika iparraldekoak dira, % 24,5 Latinoamerikatik datoz, % 18,3 Europako Esparru Ekonomikotik, % 13,6 Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 5,8, azkenik, Asiatik. Apirilean Latinoamerikatik etorritako pertsonen artean murriztu da gehien langabezia (-248), eta Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritakoak ondoren (-64).

• IKASKETA MAILA

Langabeen % 60,5ek (76.780 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 1.459 langabetu gutxiago erregistratu dira. Talde horretan % 1,86 murriztu da langabezia azken hilean. Azken urtean % 6,92 murriztu da langabezia talde honetan. Urteko erlazioan gutxien murriztu den taldea izan da.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 9,0 dira. Talde horretan % 1,74 murriztu da langabezia azken hilean, eta azken urtean % 9,41. Azken hilabetean gutxien murriztu den taldea izan da.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 23.522 dira, hau da, langabeen % 18,5. Talde hau apirilean zehar % 3,09 murriztu da, eta azken urtean % 8,19. Urteko erlazioan gehien hazi den taldea da, balore erlatiboetan.

Azkenik, langabeen % 12,0k (15.192 lagun), unibertsitateko ikasketak ditu. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean % 3,96 murriztu da langabezia azken hilabetean eta % 14,90 azken urtean. Hileko eta urteko erlazioan gehien murriztu den taldea izan da.

• KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN

Estatuan 39.012 langabe gutxiago daude aurreko hilean baino (% 0,99ko murrizketa). Guztira 3.910.628 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, % 2,34 murriztu da. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetan langabeziak ondorengo bilakaera izan du: Nafarroan % 1,75 murriztu da, Errioxan % 2,91, Kantabrian % 0,08 hazi da eta Gaztela eta Leonen % 1,33 murriztu da. Katalunian % 1,72 murriztu da eta Madrilen % 0,68.

Urte arteko erlazioan % 8,41 murriztu da langabezia EAEn, Estatuan % 2,07 hazi da.

Lan-eskatzaile langabeak 2021ko apirilean

	api-2021	mar-2021	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	56.386	57.738	-1.352	-2,34
EMAKUMEZKOAK	70.596	72.283	-1.687	-2,33
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	10.887	11.078	-191	-1,72
GIZONEZKOAK	5.721	5.824	-103	-1,77
EMAKUMEZKOAK	5.166	5.254	12	-1,67
25-44 URTE:				
GUZTIRA	51.781	53.853	-2.072	-3,85
GIZONEZKOAK	22.135	23.016	-881	-3,83
EMAKUMEZKOAK	29.646	30.837	-1.191	-3,86
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	64.314	65.090	-776	-1,19
GIZONEZKOAK	28.530	28.898	-368	-1,27
EMAKUMEZKOAK	35.784	36.192	-408	-1,13
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA				
INDUSTRIA	2.741	2.804	-63	-2,25
ERAIKUNTZA	14.586	15.037	-451	-3,00
ZERBITZUAK	8.246	8.454	-208	-2,46
AURREKO ENPLEGURIK GABE	85.061	87.362	-2.301	-2,63
LURRALDE HISTORIKOA:	16.348	16.364	-16	-0,10
ARABA	21.633	21.898	-265	-1,21
BIZKAIA	71.639	73.559	-1.920	-2,61
GIPUZKOA	33.710	34.564	-854	-2,47
EAE	126.982	130.021	-3.039	-2,34

	Langabetuak	Erregistratutako langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bidasoa Behera	4.378	11,8%	-134	-2,97	-545	-11,07
Oarsoaldea	3.955	10,9%	-17	-0,43	-366	-8,47
Donostia-S.Seb.	8.537	9,6%	-217	-2,48	-705	-7,63
Donost.Mendebaldea	3.318	9,0%	-76	-2,24	-273	-7,60
Tolosaldea	2.155	9,2%	-48	-2,18	-155	-6,71
Urola Erdia	1.289	8,4%	-83	-6,05	-168	-11,53
Goiherri	1.739	8,1%	-33	-1,86	-147	-7,79
Deba Garaia	2.545	8,4%	-74	-2,83	-307	-10,76
Deba Behera	2.861	10,8%	-107	-3,61	-441	-13,36
Urola Garaia	1.170	9,7%	-24	-2,01	-135	-10,34
Urola Kosta	1.763	7,9%	-41	-2,27	-227	-11,41
GIPUZKOA	33.710	9,6%	-854	-2,47	-3.469	-9,33
Vitoria-Gasteiz	16.793	13,2%	-287	-1,68	-1.245	-6,90
Aialako Ibarra	2.469	13,0%	20	0,82	-157	-5,98
Arabar Errioxa	780	14,2%	11	1,43	35	4,70
Arabako lautada	761	10,1%	-44	-5,47	-46	-5,70
Gorbeia inguruak	332	7,1%	9	2,79	-11	-3,21
Arabako Ibarrak	456	8,9%	21	4,83	-1	-0,22
Arabako Mendialdea	123	7,9%	2	1,65	6	5,13
ARABA	21.633	12,8%	-265	-1,21	-1.770	-7,56
Gobela	5.194	10,2%	-72	-1,37	-442	-7,84
Txorierri	2.470	10,8%	-64	-2,53	-154	-5,87
Uribealdea	3.318	10,0%	-88	-2,58	-279	-7,76
Durangaldea	3.636	9,8%	-153	-4,04	-654	-15,24
Busturialdea	2.413	11,2%	-83	-3,33	-290	-10,73
Lea-Artibai	1.020	8,5%	-61	-5,64	-219	-17,68
Enkarterriak	2.127	13,8%	-40	-1,85	-268	-11,19
Arratia-Zornotza	1.627	9,3%	-50	-2,98	-247	-13,18
Arratia-Nerbioi	1.420	10,9%	-65	-4,38	-112	-7,31
Bilbo	24.513	14,7%	-685	-2,72	-1.889	-7,15
Ezkerraldea	18.785	15,1%	-452	-2,35	-1.445	-7,14
Ibaizabal	5.014	12,5%	-105	-2,05	-390	-7,22
BIZKAIA	71.639	12,9%	-1.920	-2,61	-6.422	-8,23
EAE	126.982	11,8%	-3.039	-2,34	-11.661	-8,41

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.

** Tolosaldeko, Arabar lautadako eta Durangaldeko datuak ez dira fidagarriak administrazio-kudeaketa arrazoiengatik. Arrazoi horiek Abaltzisketako, Alegria-Dulantziko eta Abadiñoko erregistratutako langabetu kopurua haztea ekarri du, helbide osatu gabe zegoen kasuetan.